



Bertsozale Elkartearen Berripapera

ESPAÑA	FRANKEO ITUNDUA
	FRANQUEO CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

Bertsozalea

www.bertsozale.eus

Aurtengo Gabonetan ere, Ahots Baten

Abenduaren 26tik 30era izango da antzerkia, bertsoa, kantua eta literatura elkartzen dituen sormen egonaldia. Besteak beste, Unai Iturriaga eta Uxue Alberdi bertsolariek eta Danele Sarriguarte idazleak hartuko dute parte. Laster zabalduko da izena emateko epea.

Laugarren urtez jarraian, hainbat gazte sortzailek Ahots Baten sormen egonaldia igaroko dituzte Gabonetako oporrak. Urteotako datak mantenduz abenduaren 26tik 30era izango da egonaldia; baina aurreko edizioetan ez bezala aurtengoa Aubixako barnetegian egingo da, Elgoibarren (Gipuzkoa).

Antzerki, bertso, kantu edota literatura zaletasuna duten gazteei zuzenduriko egonaldia da Ahots Baten; hain zuzen, 1998-2002 urte bitartean jaiotakoek eman ahal izango dute izena. Azaroaren 19an zabalduko da horretarako aukera, eta www.mintzola.eus atarian dagoen izen-emate orria beteta edo telefonoz 943 693 870 zenbakira deituta egin ahal izango da.

Egun bakoitzean sormen diziplinetako bat lantzeko aukera izango dute

gazteek eta egun horietako bakoitzean gai horretan aditu den norbait joango da eurengana: bertsolaritza lantzeko, esate baterako, Unai Iturriaga eta Uxue Alberdi bertsolariak agertuko dira, eta Danele Sarriguarte idazlea ere izango da beste batean.

Jarraitu adi egonaldiaren inguruko berriak www.mintzola.eus atarian.

Euskarazko gainerako sormen diziplinekin elkarlanean

Mintzola Ahozko Lantegiak antolatu du Ahots Baten sormen egonaldia, beste zenbait erakunderekin eta elkarterekin batera: Bertsozale Elkarteaz gain, tartean dira Ikastolen Elkartea, Euskal Herriko Antzerkizale Elkartea, Euskal Kantuzaleen Elkartea eta ipuingintzako zenbait eragile. Asmoa euskarazko

ahozko sorkuntzan dabilzan gazteak elkartzea da, beren artean harreman sareak osatzeko eta adierazpide ezberdinak esperimentatzeko.

Jada hiru urtez egin da egonaldia eta emaitzarekin gustura geratu izan dira bai izena emandako gazteak, begiraleak zein parte hartu duten adituak; asko harrituta ere bai gazteen talentuarekin.

Sormenaren harrobia lantzeraz goaz Gabon hauetan ere.



**IGOR
ELORTZA ARANOA**

Errenteria, 2018-10-27

Doinua: Ume eder bat ikusi nuen I

Aurrera doaz bai urtea ta bertsoen begirasuna udan freskura ekartzen dugu neguan berotasuna udazkenean berriz denetik nahastean osotasuna bertsozale zeuk hartu ezazu gehien komeni zaizuna.

Saio honetako bertso gehiago, www.bertsoa.eus atarian.



Bertsoarekin batera, antzerkiarekin, kantuarekin eta literaturarekin esperimentatzen dute gazteek. / XDZ

Durangoko Azokan **zer izango dugun jakin nahi?**

Aurkeztear dagoen *Buruz buru* lana edota Bertsozaletasunaren Azterketa Soziologikoaren emaitzen inguruko solasaldia izango dira eskaintzaren baitan. Goienkale 39an izango gaituzue.

Abenduaren 5etik 9ra gauzatuko da 2018ko Durangoko Azoka. Euskal kulturgintzan egiten diren ekoizpenen erakusle-herria, Bertsozale Elkartek eta Lanku Kultur Zerbitzuak ere han izango gara bertsolarietari loturiko produktuak eskainiz eta ekitaldiak aurkeztuz.

Goienkale 39an izango dugu standa. Ekoizpenei dagokionez, *Buruz buru* lana eskuragai izango da. Hilabete bukaeran aurkeztuko da berau eta zerbait aurreratze aldera Andoni Egaña bertsolariak, Joseba Sarrionandia idazleak edota Ilaski Serrano aurkezleak parte hartu dutela esan dezakegu. Gainerako xehetasunak, esan bezala, laster ezagutuko dituzu.

Bestalde, Anjel Larrañagaren ibilbideari erreparoa egiten dion *Lana festa bihurtuz* liburu eta diskoa ere izango ditugu mahaian. Joxean Agirre idazleak idatzi ditu Azkoitiko pandero-jotzaile eta bertsolariaren inguruko bizipenak.

Gainera, Bertsolari Txapelketa Nagusia amaitu eta berehala kaleratutako argitalpena ere izango dugu tartean: txapelketa bertsoaldiak, argazkiak, doinuak eta adituen hausnarretak biltzen ditu liburua eta diskoa dituen lan honek.

Bertsozale Elkartek eta Lanku Kultur Zerbitzuak ekoiztiko produktuez gain, beste ekoizpen batzuk ere izango dira eskuragai postuan. Beraz, bertsozale, zatoz gurera eta erakutsiko dizugu daukaguna!

Azterketa soziologikoaren emaitzen aurkezpena

Abenduaren 8an, larunbatez, azokako Areto Nagusian Bertsozaletasunaren Azterketa Soziologikoaren emaitzak hizpide izango ditugu. Jone Miren Hernandez UPV/EHUko ikertzaileak gidatuko du saioa eta han hartuko dute parte Harkaitz Zubirik, azterketa egin duen ikertzaileetako batek; eta Bertsozale Elkarteko zuzendaritzako kide diren Beñat Gaztelumendik, Igor Elortzak eta Maialen Lujanbiok. 11:00etatik aurrera izango da hori.

Bezperan, abenduaren 7an, Ahotsenean eta Saguganbaran izango ditugu hitzorduek: 13:00etan, Ahotsenea gunean, *Buruz buru* lana aurkeztuko dugu eta 16:00etan etxeko txikienekin egingo dugu hitzordua Saguganbaran, *Bertso jasa bat-bateko jolasa* emanaldiarekin.



Bertsolaritzak azokan bertan standa izateaz gainera, gainerako guneetan ere izango du tokia. / XDZ

Hasi da Bertsoaroa

Azaroaren 8an izan zen lehen saioa eta 27ra arte emanaldiak izango dira asteartetan eta ostegunetan Iruñean. Guztira, zazpi emanaldik osatuko dute aurtengo zikloa.

Urte osoan bai, baina batez ere udazkena izan ohi da bertsoaren aroa Iruñean. Azaroko lehen ostegunarekin abiatu zen Bertsoaroa eta bertso-plana nahi duen orok izango du non aukeratu hilabete osoan zehar: emanaldiak izango dira asteartero eta ostegunero, azaroaren 27ra arte. Gainera, guztiek ere bertsoarekin lotura izan arren, askotariko emanaldiak dira eskainiko direnak.

Hasi zen modu berean amaituko da Bertsoaroa, bertso saio batekin, baina tarteko egunetan bestelako izaera duten ikuskizunak ere eskainiko dira: *Parrapean* errezitaldi poetiko musikala, zientzia eta bertsoa uztartzen dituen *Jakinduriek*

mundue erreko dau ikuskizuna edota bertsoaritzza eta rocka hizpide izango dituen solasaldia antolatu dira, besteak beste.

1991n abiatu zen egitasmoa, Iruñeko Udalaren eta Nafarroako Bertsozale Elkartean eskutik eta ordutik bertsoaritzza bere aniztasunean eta kalitate gorenean zabaltzea da asmoa; baita Nafarroako bertsoari eta bertsolari gazteei bultzada ematea ere.

Egitarau osoa www.bertsozale.eus atarian topatuko duzu. Gonbidatuta zaude!



Zazpi emanaldik osatuko dute aurtengo eskaintza. / XDZ

Bertsolaritzaren inguruko zenbait ikerketa ezagutuko ditugu azaroaren 15ean

Ane Labaka, Antxoka Agirre, Beñat Muguruza, Harkaitz Zubiri eta Luzia Alberro ikertzaileek beren lanak aurkeztuko dituzte Mintzola Ahozko Lantegiaren egoitzan; amaitzeko, saio berezia eskainiko dute Agin Laburu eta Eli Pagola bertsolariak.

Plazan gozatzeko bidea bakarrik ez eta bertsolaritzak ikertzeko bazka ere ematen du. Haren inguruan egiten diren azterketa lanak sustatzeko eta zabaltzeko lanean ari da Mintzola Ahozko Lantegia etengabe, besteak beste, UPV/EHUko Laboa Katedrarekin elkarlanean. Azken urteotan heldutako ohiturari jarraituz, Mintzola Lantegia antolatu da azaroaren 15erako, martxan dauden bertsolaritzari buruzko ikerketa lanak ezagutarazteko.

18:00etan hasiko da saioa Amasa-Villabonako (Gipuzkoa) Subijana etxean, Mintzola Ahozko Lantegiaren egoitzan, eta doakoa izango da. *Kazetaritza eta bertsoa: errimen oihartzunaz* lana aurkeztuko du Antxoka Agirrek lehendabizi. Jarraian, Luzia Alberro historialariak hartuko du hitza: Xenpelar, Bilintx, Pello Errota, Pedro Mari Otaño, Txirrita eta Joxe Mari Lopetegi bertsolarien bertso-paperak iturri hartuz, herri xeheak Gipuzkoan 1830-1936 urteetan nozitutako

aldaketak nola bizi izan zituen ikertu du berak eta lan hori aurkeztuko digu. Bertsozetasunaren ikerketa soziologikotik abiatuta *Postdodoismoa bertsolaritzan. Kultura sortzeko eredu eraginkorrako baten bila* ikerlanaz arituko da Harkaitz Zubiri, eta ondotik, antolatzaileok iaz saritutako bi proiektu ezagutuko ditugu: Ane Labakaren eskutik, *2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko umorea aztergai, genero-ikuspegitik* eta Beñat Muguruzaren *Noka eta toka ahoskide... eta bertsolarien adiskide?*

Azken lan horrekin lotuta, eta hitzaldi sortari amaiera emateko, hitanoa baliatuz bertso saioa eskainiko dute Agin Laburu eta Eli Pagola bertsolariak.

Gorde eguna: azaroaren 15ean, Amasa-Villabonako Subijana etxean izango gaituzu.



Puntu jarrita

IKER GOROSTERRAZU ELIZAGOEIN

Sarai, zuk aipatu bezala gure erronkarik handiena espazio segurua harrapatu eta eskaintzea da, eta horretan ahalegintzen naiz ahal dudana heinean, ikasleekin zein bertsoideekin. Espazio egokiaren inguruan aunitzetan solastu dugu gure artean eta oraindik ez dugu erantzun unibertsalik topatu, erantzun bakarrik ez dagoelako (eskerrak!).

Bertsotan aritzeko espazio bat bertso-eskola litzateke. Bertso-eskolan izena ematek bertso-eskolako partaide izatera salto bat dagoela iruditzen zait. Bertso-eskolan ikasleen arteko harreman egokiak bilatu behar dira eta talde izaera landu beharra dago horretarako: elkarrekiko konfiantza, enpatia, laguntasuna. Esperientziak hainbat bertso-eskoletako kide izan naiz eta ia guztietan zorionez hori lortu izan dut. Hortik dator gure ekosistemaren altxor handiena: lagun on asko.

Bertso-eskolak lagun talde bat izan behar du eta hori lortzean bertan parte hartzeko (kantuan ala bertze zereginetan) erosotasuna lortuko da.

Bertsotan aritzeko bertze espazioa bertso plaza da. Bertso-eskolatik kanpora jauzi egitea ez da erraza. Plazan askotan galduta sentitu izan naiz eta lekuz kanpo ere bai. Urtean zehar ditugun aukerak ikusita baiezkoa ematera derrigortua ikusi izan dut nire burua eta denborarekin ohartu naiz hori ez dela konponbidea. Norberak norberaren espazioa bilatu eta harrapatzen saiatu behar du eta horretarako zuk erran bezala kontzienteki eta talde bezala funtzionatu behar dugula uste dut. Bertsoide guztiok ez ditugu behar berdinak baina espazio aunitz elkarbanatzen ditugu eta horietan eroso sentitzeko denok elkarren artean eroso egon behar gara. Hala ere, ezin dugu gure gain soilik hartu espazioaren afera, entzuleak ere baldintzatzen baitu hori. Baina... hori ere gure esku al dago?

Espazio egokia sortzen eta osatzen lagundu izan dit txikitatik nire lagun min batek eta berarekin nagoen bakoitzean eroso sentitu izan naiz kantuan. Alazne, espazio bat elkarbanatzerakoan, bertso-eskolan zein plazan, kantukideak zer nolako eragina du? Bertsoideen arteko konfiantzak zenbat laguntzen du espazioa egokia izan dadin?

Koplak

What is bertsolaritza? ikus-entzunezkoa aurkeztuko dugu abenduaren 4an

Mintzola Ahozko Lantegiak eta Etxepare Euskal Institutuak ekoitzi dugu elkarlanean *What is bertsolaritza?* ikus-entzunezkoa, Laboral Kutxaren babesarekin. Gure herrialdeetik harago, bertsolaritza zer den azaldu asmoz egindako ekoizpena da: ingelesez egin da, eta azpigituluak ditu euskaraz, gaztelerez eta frantsesez. Abenduaren 4an aurkeztuko dugu Tabakalera, Donostian. Informazio gehiago, laster, www.mintzola.eus gunean.

Poto-Finixa



Aldibereko bat-batekoa

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako izen-ematea, zabalik

Azaroaren 5ean zabaldu zen Gipuzkoa Bertsotan sailkapen fasean izena emateko aukera; hilaren 25ean amaituko da epea. 2019ko maiatzean eta ekainean jokatu dira sailkapen faseko saioak eta izena emandakoek saio bakarrean hartuko dute parte. Behin fase hori amaituta zehaztuko dira txapelketako parte-hartzaileak. Izena emateko, www.bertsozale.eus gunean.

**BERTSOLARI
TXAPELKETA
NAGUSIKO
LIBURUA**
salgai!

www.lanku.eus

PUBLIZITATEA